



## **Pello Esnalekin elkarrizketan: “Didaktikak dirua gastatzeko aukera gutxi ematen du”**

### *Hizpide*

*Hirurogei urte betetzeko zorian harrapatu dugu Pello Esnal, oraindik HABEn, erretiroa hartu aurreko lanetan: azken egitekoak burutzen, papearak txukuntzen, armairuak husten... Eta “ondorengoei lekukoa ere ematen” erantsi beharko genuke, baina “hori aspalditik emana dago” azaldu digu berak eta “ez dago esku txarretan” esanez biribildu.*

*Paperak txukuntzea dela-eta, “hemen ari naiz hogeita hamar urte haue-tako oroitzapenak ere ordenatzen eta ibilbidea berrikusten, baloratzen...”, aitortu digu Pellok. Aukera polita iruditu zaio HIZPIDEri, mingainetik ez ezik, bihotzetik ere tira egiteko, oroitzapenen eskutik...*

*Hitzak hizpideak dakarrenez, hari-mutur askotatik tiratzeko aukera izan dugu, eta zenbait gai jorrazteko, “beti ere, nire ikuspegitik” azpimarratu digu behin eta berriro Pellok, pixka bat bustitzeko eskatu diogunean. “Azken batean, sokaren hari bat besterik ez da nirea”, erantsi du, “nahiz eta erdiguneko haria izan” esanez osatu beharko genuke geure alde-tik. Barru-barrutik eta hasiera-hasieratik ezagutzen baitu HABEren eta HABEko historia, kanpotik ikusten dena eta ezkutu-ezkutukoa, “nahiz eta etxeko trapu zatarrak, hobe etxean garbitzea”, bota digu.*

*Lehendik ere, bere ibilbidearen arrastoak utziak dizkigu Pellok bai HIZPIDE honetan, bai ZUTABE zaharrean. Eta elkarrizketa honetan sarri aipatzen dituen lan horietako batzuk, besteren lanarekin batera, denak*

*“Aipu bibliografikoak” delakoan bildu ditugu azkenean, lagungarri izan daiteke-eta, nahiz eta ez den ohikoa honelako lanetan.*

### ***Ia hogeita hamar urte HABEn: sorrera-sorreratik...***

Niretzat, 1981eko otsailaren ostiral batean hasi zen HABEko abentura. Asteko azken orduetan, ez ziren haserre Aiako eskolako neska-mutilak. Eta ni ere ez, nonbait. Ikasgelan, Realaren himnoa kantatzen ari ginela, atea jo zuen norbaitek. Sartu zenean, harrituta geratu nintzen. Ezaguna nuen: Amatiño, euskal kazetari ezaguna bezain zorrotza eta bizia. Ez dut uste hark ezagutzen ninduenik.

Eskolatik irtenda, tabernan zerbait hartuz egin zidan proposamena: nola Eusko Jaurlaritza lehen urratsak ematen ari zen eta nola, besteak beste, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko erakunde bat sortzeko asmoa zuen Kultura Sailak eta pedagogo euskaldunak behar zituen, Pedagogian lizentziatuak, eta ea prest egongo nintzatekeen...

### ***Enbido polita...***

Erantzun aurretik, joko-lagunez galdetu nion. Joxe Joan Txabarri izango zela HABEren zuzendari erantzun zidan. Hain zuzen, hark eman ziola nire izena. Ea hartuko nuen didaktikaren ardura...

### ***Lehendik aritua izango zinen helduen euskalduntze eta alfabetatzean...***

Batetik, Zumarragako Escuelas Legazpi ikastetxean, bertako irakasleei eskolak ematen. Bestetik, bi urtetan, 1977an eta 1979an, Lazkaoko udako ikastaroetan, Dionisio Amundarainek deituta. Lehenengo udan, “gurpil ikerketariak” izeneko ariketa asmatu nuen, ohartu bainintzen ikasleak elkarrekin hizketan jarri behar zirela, beti ariketa gidatuak egiten jardun gabe. Ikastaro-amaierako jaialdian, bertsotan ere aritu nintzen, oholtza gainean, Lazkao Txiki zena, Mikel Mendizabal eta Eusebio Igartzabal lagun nituela... Ez nintzen haserre.

Bigarren udako paper batzuk orain azaldu zaizkit armairuan. “Rol-joko” bat da, baina horrelako izenik gabea. Gerora etorri baitziren gurera horrelakoak. Eta rol-joko horretako partaideen artean izen ezagun batzuk aurkitu ditut: Fermin Barcelo adiskide mina (Arartekoarekin lanean urte asko daramana), Txus Congil (politikaren munduan aurrera samar ibilia), Borja Aginagalde (Lazarragaren eskuizkribua aurkitu duena), Alfredo Lopez de Gereño (gaur egun, Getxoko Udal Euskaltegiko euskara-irakaslea)... Orduan ari ziren euskalduntzen...

### ***Urte aberatsak...***

Alde askotatik ikusita. Esaterako, gogoan dut nola Dionisio Amundarainek, ikastaroa amaitu ondoren, geuk sortutako ariketa baliagarri eta joko era-

gileak eskatzen zizkigun, argitaratu eta irakasleen eskuetan jartzeko. Jokabide horren azpian, oinarri-oinarrizko intuizioa dago, beti gidari izan beharko genukeena: praktika arrakastatsuak izan behar du euskara-irakasle onen abiapuntua, eta ez hizkuntzalaritzak, hizkuntzalaritza aplikatuak edo dena delakoak, aplikatu izan ala ez. Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) dokumentuak argi jasotzen du hori, oinarrietako batean; “nola ikasten du helduak hizkuntza” baitio. Ongi etorriak izango dira hizkuntzalaritza eta abarrak, baina beti ere bitarteko badira.

***Jauzi handia egin dugu Lazkaotik HEOKara. Baina itzul gaitzen atzera. Aian geunden oraindik...***

D ereduko herri-eskolan nengoen han maisu, artean D eredua sortzeko zegoenean. Benetan gozatzen ari nintzen. Baina oso tentagarria zen Amatiñoren proposamena.

***HABE zutik jartzea, didaktika-arduradun izanik... Baina dena sortzeko zegoen.***

Hain sortzeko ere... Gogoan dut nola deitu behar izan nuen telefonoz Aiatik Lakuara, Eusko Jaurlaritzara. Etxean telefonorik ez, eta estankora joan nintzen; han baitzegoen telefono publikoa. Deitu dut Lakuara, eta Ramon Labaienenek berak hartu zuen telefonoa. Hortik kontuak atera zein neurritan zegoen dena hasieran.

HABEk berak ere ez zuen izenik. Hasierako H horrek ere zalantzak sortzen zituen, letra hori ez zutelako denek ondo ikusten. Hori dela-eta, LABE izena ere erabili genuen aukeren artean (Larrien Alfabetatze eta Berreuskalduntzearen Erakundea). Beraz, segi kontuak ateratzen. Askotan, errazegi ahazten zaigu ibilitako bidea.

***Dena den, 1981eko irailerako ia dena prest zeneukaten hasteko... Eta zuk, jakina, baiezkoa emanda Amatiñoren proposamenari.***

Ez zen erraza izan baietz esatea. Batez ere, emaztearentzat. Baina ez gara damutu.

Geroztik, irailera bitartean, bilera dezente egin genituen Amatiñok, Joxe Joan Txabarrik eta hirurok. Antton Iñurritegi ere gurekin izan zen batzuetan.

Noizbait kontaktu beharko dira nolakoak izan ziren lehen urrats haiek ere. Besteak beste, nola joan ginen Joxe Joan Txabarri eta biok, irailaren lehen egunean, Donostiako Andia kalera, 13. zenbakira. Eta nola bigarren solairuan, Euskal Gobernuaren izenean hitz egin genuen Frente de Juventudes zelakoaren buruetako batekin eta nola esan genion hango gela batzuk HABErentzat hartzera gindoazela. Halaxe egin ginen HABEren lehen egoitzaren jabe. Ez zebilen urruti Joxe Mari Etxebeste zena ere, hura Antzerkirentzat leku bila.

Handik, hiru egunera, irailaren 4an eman genuen lehen prentsurrekoa Gasteizen. Ramon Labaien genuen mahaiburu: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua. Txosten bat prestatua zuten ordurako Amatiñok eta Joxe Joan Txabarrik: berrogeita sei orriko txostena, HABEren zer-nolako nagusiak azalduz. Txosten hura banatu han bildutako kazerari, gonbidatu eta HABE Euskaltegietan irakasle izango zirenei, eta sutsu mintzatu zen Amatiño, Kultura Saileko Euskara-arazoetako zuzendaria.

***Eta handik Angostora, HABEren lau euskaltegietako eta Ermuko, Arrasate eta Urretxuko Udal Euskaltegietako irakasle izango zirenekin hiru asteko ikastaroa egitera.***

Hara joan aurretik, gogoan dut nola Lakuara bidean Arturo Rey-ekin egin genuen topo. Nik ez nuen ezaguna, baina Joxe Joan Txabarrik bai. Arturo Rey hori, besteak beste, Espainiaren ordezkari izana zen Saharan, hain zuzen “Marcha verde” hura egin zenean. Hark, nonbait, gaztetxo ikusiko gintuen aukeran, eta hala bota zigun:

“En la administración no es importante que los responsables trabajen, sino que lo hagan todos sus subordinados”.

Baina... aukeran, nahiago dut fraide batena:

“El superior debe tener todos los ‘vicios’ de los inferiores y ser, además, el más virtuoso”.

Alegia, gaez parrandaxoren bat egin behar bada, egin fraide kide guztiekin; baina, hurrengo goizean, nagusiak izan behar du jaikitzen lehena. Agian, izango dugu aukera puntu honetara itzultzeko, funtsezkoa iruditzen zait-eta.

***Baina, Angostoko bidean ginen, hiru asteko hango ikastaroa dela-eta.***

Askotan etorri izan zaizkit gogora hiru astebete bete haiek. Ezinbestekoa da irakasleen oinarrizko prestakuntza eta, aldi berean, irakasleak bat etortzea oinarrizko planteamendu eta ikuspegietan. Horixe dago, azken batean, HEOK dokumentuan ere.

***HEOK argitaratzeko, ordea, hogeitaz hamar urte itxaron beharko dugu.***

Hala ere, HABEk ateratako lehen programazio-liburu hartan ere [HABE, 1981] argi zegoen oinarrizko planteamendu eta ikuspegietan bat etortze hori...

***Bai, baina ikuspegi gramatikala ardatz hartuta...***

Bai. Baina beti ere helburuak argi izanik. Uste dut merezi duela gogoratzea, hori dela-eta, Joseba Erkiziak, 2005etik 2009ra HABEren zuzendari nagusi izan zenak, plazaratutako hitz batzuk [Erkizia, 2007: 32]:

Hasiera-hasieratik antolatu zuen HABEk euskararen irakaskuntza benetako komunikazioari begira, nahiz eta gramatikaren arabera zehaztu zituen ikas-edukiak. Hasiera-hasieratik saiatu zen uztertzen hizkuntz formen ikasketa eta lau hizkuntz trebetasunen (ulermena, mintzamina, irakurmena eta idazmenaren) garapena. Hasiera-hasieratik jo zuen euskararen ezagutza eta erabilera lotzera, ikasgelatik bertatik hasita eta ekintza osagarriak eta kanpo-ekintzak eta barnetegiak sustatuz. Eta hasiera-hasieratik hasi ziren euskaltegiak eta barnetegiak euskaldun osoak sortzen.

Apurka-apurka, gorputz hartzen joan da nahi komunikatibo hura, eta kontzeptu bihurtzen hasierako intuizio eta senak: funtzio, nozio, testu, estrategia... gaitasun komunikatibo; eta ikas-eduki berriak gehitu zai-zkie lehengoei. Eta lan hori guztia biltzera, sendotzera, indarberritzera eta biribiltzera etorri zen HEOK.

Kontu azpimarragarri asko daude laburpen horretan.

### ***Esate baterako...***

“Hasiera-hasieratik hasi ziren euskaltegiak eta barnetegiak euskaldun osoak sortzen” hori.

Egia da lehenengo urtean “Oinarrizko euskara” agiria eman zuela HABEk. Baina, Hezkuntza Sailak EGA agiria sortu orduko, agiri horri dagokion gaitasuna ipini genuen euskalduntze-prozesuaren helburu. Bai: euskaldun osoa zuen HABEk helburu; ez, inondik inora, bigarren mailako euskalduna. Berehala itzuli beharko dugu puntu honetara.

***Beraz, oraingoz hari-mutur hori zintzilik utzita, pasa gaitezen Karpeta Urdinak aipatzera [HABE, 1984a, 1984b, 1984c, 1985], nahiz eta denboraren poderioz kolore urdina galdu eta berde edo hori ere bihurtu diren. Harrigarria da oraindik ere zenbait euskaltegitan ia-ia esku-liburu izatea.***

Horren harian, gutxienez hiru gauza esan daitezke.

### ***Bota.***

Lehenengoa, ez direla hain txarrak eta desagokiak izango. Izan ere, hala daude eginak: HABE euskaltegietako hasierako praktika didaktikoa (1981-1982 ikasturteko) abiaburu hartuta. Pisu handia izan zuen Hondarribiko euskaltegiak, horrek esan nahi duenarekin. Barnetegia baitzen. Eta han, hasiera-hasieratik, euskaraz egitera bultzatzen zituzten ikasleak, ikasgelan ez ezik, jangelan eta eguneroko bizitzan ere. Eta horrek bere isla du material didaktikoan.

### ***Baina hutsuneak ere izango ditu materialak.***

Jakina. Hauxe da aipatu nahi nuen bigarren kontua. Bi hutsune aipatuko nituzke. Batetik, hornitzen duten ikas-prozesuaren helburuak ez zeuden

ekintza-terminoetan definituta, nahiz eta irakasleen senak ekintzetara jotzen zuen. Bestetik, baliatzen zituzten testuak gramatikaren zerbitzura zeuden sortuak, eta ez ekintzetara begira, zuzenean behintzat. Ondorioz, batzuetan testu artifizial(egi)ak sortzen ziren. Badago adibide polit bat, muturrekoa eta esanguratsua. “Dimara” du izenburu [HABE, 1983b: 2.25 ENTZ. 04]. Merezki du aztertzea. Nork kontaktzen ditu gauzak horrela? [Ikus 1. eranskina].

Eguneroko praktika didaktikoan, irakasle onaren esku geratzen da hutsune horiek konpontzea.

### ***Argi ibili behar...***

Gogoan dut euskaltegi jakin bateko irakasleen kexua: “urte osoa ikasten jardun ondoren, ikasleak ez dira gauza egun onak emateko ere”. Elkarrekin aztertu genuen lehen urratseko programa. Aditz trinkoa zuen ardatz eta eduki nagusi. Berez sortzen da galdera. Gordin esanda: zertarako balio du aditz trinkoak?; edo, hobeto esanda, zertarako erabiltzen dugu –zer egiteko– aditz trinkoa?

### ***Beraz, komeni dela Karpeta Urdinak berregitea.***

Hain zuzen, horixe da aipatu beharreko hirugarren kontua. Baina kontua ez da materiala aldatzea. Gainera, baliagarriak dira oraindik ere zenbait fitxa eta ariketa. Oinarri-oinarrizkoa, irakasleen ikuspegia aldatzea da (aldatzen jarraitzea).

### ***Alegia, ikuspegi gramatikaetik ikuspegi komunikatibora pasatzea.***

Ezin argiago dio HEOK dokumentuak. Ildo berean beste urrats bat eginez, ekintza-ikuspegiak mintzo da Europar Markoa [Europako Kontseilua, 2002]. Azken batean, bi ondoriotara garamatza horrek: bata, ekintza-terminoetan definitu behar ditugu ikas-prozesuaren helburuak (zer egiteko gauza izango da ikaslea halako maila amaitzean); bestea, helburu horiek zer testutan gauzatzen diren ikusi beharko dugu. Ikusi eta testu horiek aztertu. Hain zuzen, testu horiek aztertuz atzemango ditugu irakatsi beharreko edukiak.

### ***Bide luzea...***

Seguru luzeagoa izan zela Karpeta Urdinena. Gauzak argi izatea da zailena. Eta, ondoren, euskaltegiakoko eguneroko praktika didaktiko onetik hornitzea.

### ***Karpeta Urdinekin bezala...***

Azken batean, beste hogeita bost urteko jardun didaktikoaren oinarriak jartzen arituko ginateke. Oso erronka polita da.

### ***Merezi du, beraz.***

Badut adibide oso egoki bat. Garbi Ugarte irakasleari zor diot. Oker ez banago, artikulu bat ere idatzia du [Ugarte, 2010]<sup>1</sup>. Hari entzun nion nola, ikuspegi gramatikaletik abiatuta, oso zaila eta nahasia egiten zitzaion kontakizuna irakastea ikasleei. Eta nola, ikuspegi testuala baliatuz, nahikoa izan zaion ohartzea bi plano daudela kontaktetan, irakas-kuntza asko errazteko.

Uste dut oinarrizko-oinarrizkoa dela aurkikuntza. Merezi du polikiago aztertzea. Hara: batzuetan, ikuspegi gramatikaletik aztertuta, mila zatitan puskatzen dugu, xehe-xehe egiten dugu, berez bat dena. Eta, ondoren, ikaslearen eskuetan uzten dugu puzzlea berrosatzea. Ikasle azkarrek berrosatzen dute, asko kostata bada ere. Baina zenbat alferrikako lan! Zenbat luzamendu eta atzerapen! Zenbat ernegazio!

Gauzak errazago egiten dira, alderantziz jokatzuz gero; hau da, osotasun batean azalduz berez bat dena! HEOK dokumentuak pasarte oso bat eskaintzen dio ikuspegi-aldaketa horri: ikuspegi sintetikutik ikuspegi analitikora [HABE 1999: 18]. Apenas ustiatu dugun, ordea.

### ***Hori horrela bada, kontua ez da soilik materiala berritzea. Aparteko garrantzia du irakasleen prestaketak.***

Hain apartekoa ere! Beti gai berarekin egiten dugu topo. Dena den, zehar-bidez bada ere, materialak lagun dezake horretan.

### ***Karpeta Urdinekin ari ginen...***

Bai. Tamalez, apurtu egin zen HABE euskaltegiekin batera materiala egiteko dinamika hori.

Baina horrek, besteak beste, materialaren beste alderdi batzuk jorratzeko denbora eta aukera eman zigun: hizkuntzarena.

Gogoan izan behar da, izan ere, gure material guztia euskararen ardura-dunaren eskutik pasatzen zela. Eta konta ahaletan itzultzen zigula ukituraren bat gabe.

### ***Zorrotza zen Joxe Lizarralde.***

Eta maisu handia. Izugarrizko suertea izan zen harekin lan egitea. Eta izugarrizko galera hura Ameriketara joatea misioetara. Harekin ikasi genituen mila kontu; eta, besteak beste, tradizioz jasotako euskarekiko errespetua: euskara egina dagoela, ez dugula asmatzen ibili beharrik. Harekin ikasi genuen, zuzena ez ezik, egokia ere izan behar duela darabilgun euskarak. Eskerrak gero, haren orde, Boni Urkizu etorri zen. Masterrak egiteko ez zenuen inon matrikulatu beharrik. Bi horiengana joatea nahikoa izan genuen. Badira inoiz ordaintzen ez diren zorrak.

***Agian, Joxe Lizarralderi ikasitakoarekin izango du zerikusirik HABE aldizkarian, “Euskararen kutxa” izeneko atalean, ahozko euskarari buruz plazaratu zenituen lan haiek.***

Joxek mila bide ireki zizkigun. Eta bideak irekitzea izaten da askotan zailena. Hortik aurrera, bideak berak erakutsi ohi dizu nondik nora jo.

“Euskararen kutxa” haietan plazaratutakoak, guztira, hirurogeita lau lantxo izan ziren: aldizkariaren 103. aletik 166. alera bitartekoak. Gustura ari nintzen, baina etetea erabaki nuen, norbaiten kritika zela medio. Zeharbidez iritsi zitzaidan kritika: lan onak izango zirela nire haiek, baina ikuspegi gramatikaletik zeudela eginak, batik bat. Horrek eman zidan zer pentsatua, nahiz eta erabat konforme egon ez.

***Gero, “Unescoren Albistaria” aldizkarian ere egin zenuen saioren bat, itzulpenak orrazten eta egokitzen.***

Askoz ere geroago izan zen hori: 1995ean eta 1996an, eta zortzi aletan (96-103.etan).

Askotan galdetzen nion neure buruari zergatik argitaratzen genituen horren itzulpen gogorak. Hain zuzen, jatorrizko itzulpenak orrazteko aukera izan nuen, eta oso gustura aritu nintzen: ezkerreko zutabearen esku-ratutako itzulpenak jarri eta eskuinekoan orraztu eta egokitu, aldaketak eginez, Joxe Lizarralde gogoan nuela eta Boni Urkizu eskuar, beti laguntzeko prest.

Uste nuen betiko galduak nituela lan horiek, bi zutabeak ezker eta eskuin zituztela gordeak. Baina orain azaldu zaizkit, armairuak txukuntzean. Ez dut poz txikia hartu.

***Zuzen ez ezik, egoki ere nola idatzi ikasteko estrategien azterketa egiteko material egokia.***

Benetan lan polita egin daiteke. Eta lehen urratsak ere eginak daude: “Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa” lantxoan [Esnal, 2002; 2009: 58-62] eta *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* liburuan; hau Euskaltzaindiko Corpus batzordean ondua [Esnal (koord.), 2008].

Dena den, aipatu berri dituzu bi hitz –egoki eta estrategia– iruzkinen bat merezi dutenak. Orain, erabat geureganatuak ditugu, baina gizalegezkoa da nori berea aitortzea.

Egoki dela-eta, Eusebio Osa zenaren *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera* irakurriz neureganatu nuen [Osa, 1990]. Hor azaltzen da, bai Eusebioren beraren lanean, bai Patxi Goenagaren hitzaurrean [Goenaga, 1990]. Gero, *Idazkera-liburuaren* ardatzetako bat bihurtu nuen [Zubimendi, Esnal, 1993]. Uste dut merezi duela hori argi uztea; izan ere, aita bat baino gehiago azaldu zaizkio hitz eta kontzeptu horri geurean. Baina, esan bezala, “nori berea da gizalegea”.

Estrategia dela-eta, berriz, aspaldixkotik dugu ezaguna hizkuntzen irakaskuntzan, Canale eta Swainen eskutik [Canale, 1983; Canale,



Swain, 1980], eta HEOK dokumentuak ere bereganatu zuen. Baina, orain darabilgun zentzu horretan, HABEk antolatutako ikastaro batean neureganatu nuen, 2001ean, Kataluniako Universitat Obertako Antoni Badia irakaslearen eskutik [Badia, 2001]. Tximista bat bezala izan zen. Senez ezagutzen nuen, erabilia bainuen bai *Idazkera-liburuan*, bai *Unescoren Albistaria* orrazten eta egokitzen, baina hitza, izena, falta zitzaidan. Antoni Badia prestuari ikasi nion.

### ***Egokitasunarena nahiko barneratua dugu; estrategien kontua...***

Hau ere ari da pixkana-pixkana sustraiak zabaltzen. Baina, bai: lanak ematen ditu kontzeptu horretaz jabetzeak. Hain gaude kateatuta gramatikaren sareetan. Esaterako, izan da hizkuntzalari bat –Euskal Filologian doktore dena–, *Testu-antolatzaileak*. *Erabilera estrategikoa* liburua irakurrita galdetu digunik ea noiz zerrendatu behar ditugun testu-antolatzaile guztiak. Erantzun genion liburuan argi esana dagoela (ia) edozein hitz eta sintagma bihur daitekeela testu-antolatzaile. Agian, testu-markatzaileen zerrenda esan nahiko zuen. Baina ez dut uste. Haren arreta izenburuaren lehen zatian geratu zen iltzatuta, noiz eta mamia bigarreanean dagoenean. Ikuspegi-aldaketaren zailtasuna!

### ***Dena den, zailtasunak zailtasun, oso kontzeptu emankorra da estrategiarena, nola hizkuntzaren erabilera egokiari begira hala didaktikari begira ere.***

Emankorra eta oinarrizkoa. Hain hala, Lourdes Elosegiren hitzetan, euskararen erabiltzaile estrategikoak lortzea baita helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu [Elosegi, 2008]. Ez dago biribilago esaterik.

Euskararen erabilera egokiari begira, berriz, lehentxeago aipatu dut *Testu-antolatzaileak*. *Erabilera estrategikoa*, Euskaltzaindiko Corpus batzordean ondua. Hain zuzen, nahikoa da ikuspegi-aldaketa txikia –egia esan, txikia izanik ere, denbora dezente eskatzen du– askabidean ipintzeko korapilo itxuraz askaezinak. Ea beste horrenbeste egiten dugun hitz-ordenarekin ere. Osagarri polita izan daiteke, bide batez, Eusebio Osak duela hogeit urte plazaratu zuenarentzat.

### ***Idazkera liburua aipatu duzu bi aldiz. Batek baino gehiagok esan du mugarri bat dela liburu hori euskal testugintzan...***

Izango da zerbait. Bi argitalpen agortu ziren hiru hilabeteen, biak Kultura Sailak eginak.

Arantza txiki bat utzi zidan lan horrek. Izan ere, HABEren baitan hasi ginen horretan lanean Joxe Ramon Zubimendi eta biok. Baina une batean erabaki zen hura ez zela HABEren egitekoa. Ulertzen dut zer esan nahi zuten, eta agian ez nuen jakin gauzak ondo azaltzen; hau da, zer lotura zuen didaktikarekin eta abar. Kontuak kontu, pena da HABEk ez argitaratu izana. Gero saiatu nintzen, bai, okerra konpontzen, lanaren muina ZUTABEn plazaratuz [Esnal, 1993a; 1993b].

***Agi danean, aterea izango duzu arantza, HIZPIDE honetako 57. eta 71. aleekin.***

Harrera ona izan dute biek, eta hori oso pozgarria da. Besteak beste, HEOK bere bidea egiten ari den seinale.

***Bide luzea da HEOKarena ere. HABEk 1999ko udazkenean argitaratzen du dokumentua [HABE, 1999], 2000ko urtarrilaren 24koa da Kultura sailburuaren agindua [EHAA, 2000]...***

Era adierazgarrian esaten zuen Boni Urkizuk: “hasiera-hasieratik gauza bakarra esaten ari zarete, lehen ZUTABEn eta orain HIZPIDEn: ikuspegi komunikatiboa, ikuspegi komunikatiboa...”. Eta hala da. Neurri batean behintzat, hasiera-hasierakoa du HABEk ikuspegi hori. Baina denbora behar da horretaz jabetu eta hori zertan gauzatzen den zehazteko eta xehatzeko, eta ez soilik metodologian, baita kurrikuluaren beste hiru osagai nagusietan ere: helburu, eduki, eta ebaluazioan. Eta, gainera, HEOK ez da, soilik, ikuspegi komunikatiboa. Ziaboga bat baino gehiago egitea eskatzen du HEOKak.

***Bota.***

HEOK indarrean jartzen duen aginduak ez du soilik kurrikulu berria indarrean jartzen. Ordu arteko programak, izan ere, HABEk egiten zituen, Kultura sailburuak indarrean jarri eta euskaltegiak aplikatu. HEOK, ordea, markoa da: erreferentziatzeko markoa. Eta horren baitan egin eta gauzatu behar du euskaltegi bakoitzak bere kurrikulua [EKP: Euskaltegiaren Kurrikulu Proiektua]. Horrek esan nahi duen guztiarekin. Irakaslea eta euskaltegia ez dira –ez dute izan behar– aplikatzaile huts; ikertzaile eta sortzaile baizik.

***Irakasle profesionalaren aldeko aldarria...***

Inplikazio handiak dituen aldarria. Bai didaktikan, bai irakasleen prestaketan eta lan-egoeran...; azken batean, sektore osoaren ikuspegian. Bada liburu bat, *Una teoría para la educación* [Carr, 1996], begiak zabaldu zizkidana. Hori baliatu nuen, gero, HEOK egiten ari ginela, irakasleen artean kurrikulu berriarentzat habia prestatzen egindako zenbait saiotan. Lantxo bat ere argitaratu nuen, HIZPIDEn, “Metakurrikulua” izenekoa [Esnal, 1999]. Uste nuen, eta uste dut, merezi duela eguneroko jardunetik zertxobait urruntzea, kurrikuluaren zer-nolakoaz eta nondik norakoaz jabetu ahal izateko.

***Eta, hala ere, beti eguneroko jardun didaktikoari begira...***

Eguneroko jardun didaktikoa dugu abiaburu eta ardatz. Didaktika, didaktika eta didaktika. Hori du HABEk egiteko nagusi. Eta didaktikaren zerbitzura egon behar dute gainerako baliabideek. Proiektu didaktikoa da HABE. Eta kito. Halaxe gogoratu eta aldarrikatu genuen, HABE

Legearen 10. urteurrenean [Askoren artean, 1994]. Eta hori bera azpimarratu nuen, orain Bronckarten eskutik [Bronckart, 1993], Helduen euskalduntzearen III. Jardunaldietan [Esnal, 2001: 34-35].

### ***Denok daukagu didaktika saihesteko arriskua.***

Bai. Askotan dut ikusi neure buruarekin. Eskerrak, behin eta berriro, aldamenean izan dudan Lourdes Eloseg, urak didaktikaren errortara ekartzeko. Askotan gogoratu behar izan ditut Bronckarten hitzak: “hizkuntz teorien martxa azkarrak ilusio huts bihurtu du irakasleen etengabeko formazioa”. “Helburu pedagogikoek agindu behar dute zer hartu hizkuntzalaritzatik”.

### ***Hemen kokatu beharko genuke, esaterako, lehen aipatutako Garbi Ugarteren esperientzia.***

Hain zuzen. Ezin argigarriagoa da. Antzekoa gertatu zitzaidan lehenago, Lasarteko Udal Euskaltegian, Marifer Gorostiza irakaslearekin ere. Kontatua dut HIZPIDEn [Esnal, 2009: 105].

Dena den, ez da erraza. Bronckarten hitzak berriro gogoratuz: “Guk kritikatzeko dugun jokabidea da diziplina zientifikoetatik praktika pedagogikoetara doana; hau da, haiek hauetara *aplikatzea*, esan ohi den bezala. Azken hamarkadetan, bi eratan mamitu da jokabide hori: hizkuntzen psikopedagogian eta hizkuntzalaritza aplikatuan”. “Hizkuntzalaritza aplikatua eta psikopedagogia kritikatu ditugu, hain zuzen, horiek hizkuntzalaritza eta psikologia direlako lehen-lehenik eta batez ere. Hizkuntzaren didaktikak, ordea, alderantziz jokatu nahi du, berriro ere pedagogiari emanez lehentasuna”.

### ***Zeure buruarekin borrokan bezala ikusten zaitut...***

Borrokan bezala, ez. Borrokan. Hemen dagoelako HABEren eta euskaltegien eta irakaslearen arrakastaren giltza nagusietako bat. Denok galdetu beharko genioke geure buruari zer neurritan ari garen didaktika egiten.

### ***HABEkook lehenengo garaia.***

Bai. Lehen esandakoa: beharrezkoak dira bitarteko guztiak. Kontuz ibili beharrean gaude, ordea. Morroi onak dira bitartekoak, baina nagusi txarrak.

Eta, agian, hemen dute tokia Arturo Reyren hitz haiek: “En la administración no es importante que los responsables trabajen, sino que los hagan todos sus subordinados”. HABEn, bertsio horretan ez dut ikusten arrisku handirik. Baina bai dela arriskutsua beste bertsio honetan: “HABEn ez da garrantzitsua arduradunak didaktikoak izatea, baizik eta “mendeko” guztiak didaktikan jardutea”. Izan ere, nola denontzat errazena den didaktikatik urruntzea, azkenean nork dihardu didaktikan?

***Urrutira joan gara berriro. HEOKaren lehen urratsetan geunden.***

Garrantzizko urteak izan ziren, guretzat behintzat. Besteak beste, harreman zuzenagoa izan genuelako irakasleekin. Eta geroztik harreman hori handitzen joan delako. Funtsezkoa iruditzen zait.

***Hala ere, zuk ez duzu inoiz eten irakaskuntzarekin. Bertso-eskolako irakasle ere izan zinen, Zarautzen.***

Hamabost urte oso aberatsak izan ziren. Hain zuzen, hantxe probatzen nituen HEOKako printzipioak-eta. Kontu asko berri ditzaket, baina bakarrera mugatuko naiz.

Gogoan dut nola zein harrিতa geratu nintzen, eskolarteko txapelketako saio batean, neska-mutil batzuk bertsoak idazten silabak behatzez konstatzen ikusi nituenean: berez bat dena zatitzen. Horra hor, ikuspegi sintetikoaren ondorio kaltegarrietako bat. Adibide esanguratsuagorik!

***HEOKaren harian, EKPaK etorri ziren.***

Egiteko handia izan zen euskaltegienez. Handiegia ere bai. Baina tarteka ondo etortzen dira horrelako astinduak. Jarraitu egin behar gero, hainbat euskaltegi eta irakaslek jarraitzen duten bezala. Irakasle profesional on asko dago. Ez da erraza, ordea, ikuspegi gramatikalari buelta ematea. Euskaltegiek bakarka ezin dute hori egin. Ezinbestekoa da HABEren inplikazioa ere.

***Lan polita egin zen 2000-2003 urteetan. Eta horren emaitza izan zen, besteak beste, HIZPIDE 57.***

Hogei euskaltegitan aritu ginen Lourdes Elozegi eta biok EKPaK bideratzen, nahiz eta horietako hamazazpitan amaitu genuen prozesua. Egindakoa bildu nahi izan genuen zenbaki horretan. “Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat” du izenburu, eta horixe da.

Saiatu ginen jardun didaktikoan oinarritzen eta jardun didaktikoan amaitzen. Lehen-lehenik, didaktika; gero gerokoak. Eta beti, Bronckartena gogoan: “pedagogoek asko daukate teorikoetatik ikasteko; baina zientzialarien egitekoa da egokiak diren egintza pedagogikoak deskribatu eta teorizatzea”.

***Askotan aipatzen duzu Bronckart...***

Baina Bronckart osorik, alderdi linguistikora mugatu gabe.

Bronckart, Itziar Plazaolaren lan baten eskutik ezagutu nuen. Ez diot behin ere behar adina eskertuko. “Ipuin kontaketa euskaraz: aditzaren funtzionamenduaz zenbait elementu” du izenburu lanak [Plazaola, 1990]. Hark Bronckartek bost urte lehenago plazaratutako obra aitzindarira eramanez ninduen [Bronckart, 1985]. Honekin ari nintzela ekarri zidan eskura Lourdes Elosegik 1996koa, geroztik oinarri-oinarrizkoa izan duguna [Bronckart, 1996].

### ***Behin eta berriz aipatzen duzu Lourdes Elozegi ere.***

Ia hogeita hamar urte izan dira elkarrekin lankidetzan. Bera izan zen Karpeta Urdinen eragile nagusia. Gauza asko zor dizkiot. Batez ere, behin eta berriro didaktikaren alorrean eutsi izana. Esan dizut lehen: errazegi ihes egiten dut hizkuntzalaritzara. Eskerrak Lourdesek ez didan utzi alde egiten. Lourdesena da, gainera, Ekintza Komunikatiboaren kontzeptua. Kontzeptu honi esker, batera bildua ikusten dugu HEOKan sakabanatua dagoena. Inork baino hobeto ezagutzen du Lourdesek HEOK. Eta berak erakutsi digu aurrerabidea ere, Europako Markoaren norabidean erakutsi, hain zuzen: ekintza-ikuspegiaren harian.

### ***Eta Lourdesekin batera diseinatu duzu HEOKaren 4. maila ere.***

Oso erronka polita izan da. Baina ez ginen hutsetik abiatu. Eskueran geneukan aurretik egina: Laneko Euskara osatzen duten lau liburuak [Elhuyar, 1986, 1987, 1988; UZEI, Elhuyar, 1992], HEOK eta EKPaK bideratzen egindakoa.

Erronka hirukoitza zen. Batetik, edukiaren aldetik, 4. mailak ezin zuen izan gramatika gehiago, eta hori lexikoa landuz osatzea. Ikuspegi komunikatiboak zabalduak zizkigun bideak. Baina hor zegoen erronkaren bigarren galdera: zertan gauzatzen dira laugarren mailan, eta ez soilik edukietan, gaitasun gramatikala, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun testuala eta gaitasun estrategikoa? Eta, behin zehazte-lan hori egin ondoren, hirugarren galdera: nola batera ekarri puzzle nahasi hori?

Saiatu naiz egindakoa azaltzen HIZPIDE 71n. Baina lan horretan ere badago arriskurik: izenburuaren lehen zatia soilik aintzat hartuta irakurtzea –“Testu-arkitektura eta Gramatika”– bigarrena –“ekintza komunikatiboaren baitan”– ahaztuta. Alegia, berriro ere didaktikaz ahaztea.

Dena ez dago zerbaki horretan, baina asko bai. Gauzak osoago daude, eta era dinamikoagoan, 4. mailako ikasleak prestatzeko gaikuntza-ikastaroan. Guztira, 200 orduko ikastaro trinkoa da...

### ***Entzun dugu ordu gehiago ere badirela.***

Bai. Benetako orduak askoz gehiago izan daitezke. Horretan, irakasleak berak dauka zeresan handia: azken batean, zenbat nahi duen. Asko eskatzen duen ikastaroa da, baina irakasleak pozik sumatu ditugu, eta hori pozgarria da hiru tutoreontzat.

### ***Izan ere, hiru lankide ibili zarete gaikuntza-ikastaroetan.***

Gaikuntza-ikastaroetan eta 4. mailako gainerako lanetan: egiaztatze-proba eta abarretan. Bai. Ezinbestekoa izan dugu Alex Mungiaren ekarria. Lan eskerga egin du. Motz geratzen dira horrelakoetan bi lagun. Gehiegi ez da ona izaten, baina gutxiegi ere ez. Suerte handia izan da niretzat Alexekin ere lan egin izana.

### ***Lanak lan, bideratua dago HEOKaren 4. maila ere.***

Harrokeria ez bada, poliki samar bideratua esango nuke. Izan ere, zehaztua dago 4. mailako modulua ere: taldean, 140-180 ordu; eta bakarka, 15 tutoretza-ordu.

Are gehiago: gauza asko aplikagarriak dira gainerako mailetan.

Baina bada besterik ere. Hara. Uste dut lortu dugula azkenean dena batera ekartzea, edozein gai osotasun baten baitan kokatzea. Hartara, edozein ikastaro eskatuta ere, uste dut egoki samar erantzun dezakegula.

Esaterako, oraintsu eman dut, Ilazki Euskaltegiak eskatuta, puntuazioari buruzko ikastaro bat. Asko gozatu dut irakasle partaideekin batera. Sintesia egina izateak halako seguritatea ematen dizu. Eta horrek asko laguntzen dizu lanean, irakasleen galderen irrikan egoten zara.

### ***Beraz, akorde handi batez burutu duzu HABEko ibilaldia.***

Aukeran, nahiago nuke akordioaz hitz egitea, akordeaz baino. Eta puntu horretan badut halako arantza bat. Askotan ez dut asmatu energiak batera biltzen. Sinergia deitzen zaio horri? Nahiago nuke geratzen zaretenok asmatuko bazenute.

### ***Azkenik, zer izenburu ipiniko zenioke elkarriketa honi?***

Berez, zure egitekoa da hori. Baina niri, Amatiñok HABE aldizkariaren 0 zenbakian iritzi-artikulu bati jarri zion izenburu probokatzaile hura datorkit burura. “Euskarak dirua gastatzeko aukera gutxi ematen du” zioen [Aranberri, 1981]. Haren harian, nik ipiniko nioke “Didaktikak dirua gastatzeko aukera gutxi ematen du”.

### ***Probokatzen, hortaz?***

Zirikatzten. Eta, batez ere, eskerrak ematen. Hogeita hamar urte hauetan bidaide –gogaide izan hala ez– izandako guztiei: HABEko lankideei lehenik, eta euskaltegi guztietako irakasleei.

### ***Oharra***

1. Editorearen oharra: Hizpideren hurrengo alean emango da argitara.

### ***Aipu bibliografikoak***

**Aranberri, L. A.** “Amatiño”. 1981. Euskarak dirua gastatzeko aukera gutxi ematen du. *HABE*, 0: 5.

**Askoren artean.** 1994. *HABE etorkizunari begira. HABE Legearen 10. urteurrena. Ihardunaldiak.* Donostia: HABE.

**Badia, A.** 2001. Aprender a Aprender: estrategias y técnicas. 5Saila, 33. [Jatorrizkoa frantsesez dago: *Les sciences du langage: un défi pour l'enseignement?* Paris, Unesco – Delachaux & Niestlé, 1985. Gaztelaniazkoa ere 1985ean plazaratu zen: *Las ciencias del lenguaje: ¿un desafío para la enseñanza?* Paris, Unesco.

**Bronckart, J. P.** 1996. *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*, Lausanne - Paris, Delachaux et Niestlé.

**Canale, M.** 1983. De la competencia comunicativa a la pedagogía comunicativa del lenguaje.

- Varios autores: *Competencia comunicativa. Documentos básicos en la enseñanza de lenguas extranjeras*. Madrid: Edelsa, 1995.
- Canale, M., Swain, M.** 1980. Fundamentos teóricos de los enfoques comunicativos. La enseñanza y la evaluación de una segunda lengua. *Signos* 17: 54-62; 18: 78-89, 1996.
- Carr, W.** 1996. *Una teoría para la educación. Hacia una investigación educativa crítica*. Madrid, Morata.
- EHA.** 2000. Agindua, 2000ko urtarrilaren 24koa, Kultura sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikulua onartuz. EHA: 2000.02.08.
- Elhuyar.** 1986. *Zientzia eta teknika*. Donostia: HABE.
- Elhuyar.** 1987. *Aurrezki-kutxak eta banka*. Donostia: HABE.
- Elhuyar.** 1988. *Udal-administrazioa*. Donostia: HABE.
- Elosegi, L.** 2008. Euskararen erabiltzaile estrategikoa: helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu. *Euskera* 53: 513-523.
- Elosegi, L., Esnal, P.** 2004. *Euskaltegi-kurrikulua egiteko jardunbide bat*. Hizpide 57 [ale monografikoa].
- Erkizia, J.** 2007. HABE eta euskalduntze-alfabetatzea, 1981 - 2007: lehenak badu gerorik. *Bat. Soziolinguistika aldizkaria*, 62: 31-37.
- Esnal, P.** 1993a. Idazkera lantzen: bi korapilo askagai. *Zutabe* 31: 57-63.
- Esnal, P.** 1993b. Idazkera lantzen: alde zurretiko erabaki bat eta zenbait ondorio. *Zutabe* 34: 69-75.
- Esnal, P.** 1999. Metakurrikulua. *Hizpide* 44: 22-50.
- Esnal, P.** 2002. Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa. *Hizpide* 51: 19-33.
- Esnal, P.** 2009. *Testu-arkitektura eta Gramatika, ekintza komunikatiboaren baitan*. Hizpide 71.
- Esnal, P.** (koord.) 2008. *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.
- Europako Kontseilua.** 2002. *Erreferentzi Marko Europar Bateratua. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako*. Donostia: HABE.
- Goenaga, P.** 1990. Hitzaurre gisa. Osa, Eusebio: *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua: 9-11.
- HABE.** 1981. *Helduen euskalduntzerako programazioa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: Lehendakaritza Saila: Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HABE.** 1984a. *Irakaslearen liburua: 1. urratsa*. Donostia: HABE.
- HABE.** 1984b. *Irakaslearen liburua: 2. urratsa*. Donostia: HABE.
- HABE.** 1984c. *Irakaslearen liburua: 3. urratsa*. Donostia: HABE.
- HABE.** 1985. *Irakaslearen liburua: 4. urratsa*. Donostia: HABE.
- HABE.** 1999. *Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikulua*. Donostia: HABE.
- Osa, E.** 1990. *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- Plazaola, I.** 1990: Ipuin kontaketa euskaraz: aditzaren funtzionamenduaz zenbait elementu. *Hizkuntzaren Psikopedagogia. Testu motak, funtzionamendua eta didaktika*. Bilbo: Labayru Ikastegia: 61-79.
- Ugarte, G.** 2010. A1-B1 mailetan lehenaldiko kontaketa lantzeko proposamen didaktikoa. *Moldiztegia*.
- UZEI, Elhuyar.** 1992. *Osasun-zaintza*. Donostia: HABE.
- Zubimendi, J. R., Esnal, P.** 1993. *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

## Dimara

---

### HELBURUA

**Hizkuntz trebetasunetakoa:** entzumena lantzea.

### IRAUPENA

MATERIALA k -25 KASETEA.

---

### NOLA EGIN

– Behin edo bitan entzun:

#### DIMARA

Emaztea eta biok jatetxera etorri gara. Larunbata da. Ia larunbatero irteten gara eta kanpoan afaltzen dugu.

Haurrak amonarekin uzten ditugu. Emaztearen ama, nire **amaginarreba**, **alarguntsa** da eta bakarrik bizi da. Amonari haurrak asko gustatzen zaizkio eta benetan maite ditu. Larunbat arratsaldean gure bi seme-alabak amonaren etxera eramaten ditugu eta berak **jasotzen ditu**.

Haurrak oraindik oso gazteak dira –hiru eta bost urte dituzte– eta amonarekin gustora ibiltzen dira. Amona, **zer esanik ez**, larunbata itxaroten egoten da. Guri hau oso ongi etortzen zaigu, horrela lasai irteten gara eta.

Hotz dago. Negua **bapatean** sartu zaigu eta ia konturatu gabe elurra ere agertu da. Nire emazteari elurra asko gustatzen zaio eta Dimatik mendiak zuri-zuri ikusten ditugu. Horregatik gaur Dimara etorri gara. Jatetxean sartu baino lehen, zoko batean haurrak bezala jolasean aritu gara. Zen arraio!

Gose naiz. Elur artean izerdi apur bat bota dugu eta orain gose gara. Badator etxeakoandrea. Nik hasteko salda beroa hartuko dut eta gero txuleta errea. Emazteak arrain-zopa eta legatza eskatu du. Ondoren gazta zaharra eta kafe **bana** hartuko dugu.

Ondo geratu naiz eta emaztea ere bai. Gaueko hamabiak laurden gutxiago dira. Ateri dago. Emazteak inguruko zelaia eta pinadiak ikusi nahi ditu.

Ordaindu eta kanpora irten gara. Zerua **oskarbi** dago. Ilargi bete. Izarrak ageri dira. Haizerik ez. Elurra oraindik inork ikutu gabe. Ibiltzen hasi gara...